

## BESTELAKO XEDAPENAK

### OSASUN SAILA

## 3397

*AGINDUA, 2016ko uztailaren 12koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi estrategiako biozientziak-osasuna lehentasunari lotutako ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzen deialdia egiten baita.*

Osasun Sailaren eskumenetako bat da osasun-zientzien alorrean ikerketa-jarduerak sustatzea eta planifikatzea, Euskadiko osasun-sistema etengabe garatu eta hobetzeko funtsezko elementua baita hori. Horri dagokionez, Euskadiko osasun-sistematzat hartuko da Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 5. artikuluan zehazten dena.

Apirilaren 25eko 14/1986 Legeak, Osasunari buruzkoak, ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoak, uztailaren 3ko 14/2007 Legeak, Ikerketa Biomedikoari buruzkoak eta ekainaren 1eko 14/2011 Legeak, Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzkoak, ikerketa sanitarioa sustatzeko erreferentzia-esparru bateratu bat eskaintzen dute, eta era eraginkorragoan funtzionatzeko baldintzak ezartzen dituzte.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2020 –«PCTI 2020. Una estrategia de especialización inteligente. Research & Innovation Smart Specialisation Strategy - RIS3»– Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia, teknologia eta berrikuntzako sistemarako egungo esparrua dugu, eta haren misioa da euskal gizartean ongizatea, hazkunde ekonomiko jasangarria eta enplegua hobetzea, espezializazio adimentsuan eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren eragin-kortasunaren hobekuntzan oinarritutako ikerketa eta berrikuntza politika baten bidez.

RIS3 Euskadi estrategian lehentasunezko hiru arlo identifikatu dira, eta horien artean dago arlo biosanitarioa, biozientziak-osasuna bikote gisa identifikatua. Osasun Sailak, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzaren bidez, ikerketa eta berrikuntza sustatzea proposatzen du esparru estrategiko komun horren barruan, eta Osasun aroko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiaren (2020) bidez laguntzen dio horri.

Osasun aroko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiaren (2020) helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan biozientziak-osasuna arloaren garapena sendotzen laguntzea; horretarako, I+G+b jarduerak instituzionalizatuko dira osasun-sisteman eta enpresekiko eta beste eragile batzuekiko elkarreraginak bideratuko dira, osasunean eta balio-sorkuntzan emaitzak hobetzeko.

Deialdi hau Osasun aroko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia (2020) horren barruan sartzen da, baita PCTI 2020 eta RIS3 Euskadi estrategian ere, eta ardatz estrategikoetariko birekin dago lotuta. Eraginaren Ardatza dago batetik, zeinaren helburua baita I+G+b jardueren eragina handitzea, herritarren osasuna hobetzeko eta aberastasuna sortzen laguntzeko; eta, bestetik, Baliabideen Ardatza dago, zeinaren helburua baita osasunaren alorrean ikerkuntzaren eta berrikuntzaren finantziazioa hobetzea, bai barneko eta bai kanpoko baliabideen bitartez.

Agindu honetan araututako jarduerak, beraz, helburu bikoitza daukate; hau da, herritarren osasuna eta ongizatea hobetzen laguntzea, alde batetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen sozioekonomikoari laguntzea, bestetik, arlo biosanitarioan jakintza sortzen, zabaltzen eta/edo aplikatzen lagunduz, traslazio- eta lankidetzak-ikuspegiak ikerketa-proiektuen bidez.

Laguntza-deialdi honetako lehentasunezko arloak deskubrimendu ekintzaileko prozesua delakoaren barruan sartzen dira; prozesu hori Euskadi RIS3 estrategiaren barruan biozientziak-osasuna esparrua garatzeko ezarri da, eta eragile sanitarioek, zientifiko-teknologikoez, enpresarialek eta sozialek hartzen dute parte bertan. Apurka-apurka lehentasunezko arloak eta beste ekimen estrategikoko batzuk ezarriz, prozesu patologikoei eta prozesu horien prebentzioari, detekzioari eta tratamenduari buruzko jakintza eta jakintza horren aplikazioa sustatu nahi da; horretarako, besteak beste, medikuntza pertsonalizatua erabiliko da, bai eta teknologia berrien garapena eta aplikazioa ere, ikuspegi traslazonal batetik, ikerketako emaitzak pazienteengan aplikatu ahal izateko.

Osasun Sailaren zuzendaritza kontseiluak onartutako 2016ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren barruan dago deialdi hau (Osasuneko sailburuaren 2016ko apirilaren 11ko Agindua, 2016ko maiatzaren 10eko Aginduaren bidez aldatua), eta bertan jasotzen denez, prestakuntza eta berrikuntza dira diru-laguntzen jarduera-eremu handienetakoa.

Kontuan hartu da hori guztia, bai eta honako arau hauek ere: diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (aurrerantzean, DLO) eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako lege horren Erregelamendua (DEO), aplikatzeko oinarritzotzat jotzen diren manuei dagokienez; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 1998ko urtarrilaren 19koa); Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen berme eta ordainketen erregimena arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, eta oro har aplikatu behar diren gainerako arauak. Beraz, hori dela eta, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi strategiako biozientziak-osasuna lehentasunari lotutako ikerketa- eta garapen-proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egitea eta diru-laguntza horiek ematea, publikotasun-, gardentasun-, lehia-, objektibotasun- eta berdintasun-printzipioen eta diskriminaziorik ezeko printzipioaren arabera.

Deialdi honen ondorioetarako, ikerketa eta garapena jarduera ez-ekonomikotzat hartuko da, eta Ikerketa eta Garapenerako eta Berrikuntzarako laguntza estatalei buruz Europako Erkidegoaren esparruan Europar Batasunak ezarritako baldintza bete beharko ditu (2014-06-27ko EBAO, C 198), eta hori guztia Agindu honen 4. artikuluko 4. eta 5. zenbakietan ezarritakoarekin bat etorritz.

##### 2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi hau finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoen zenbateko osoa 1.410.000 eurokoa da. Baliabide ekonomiko horiek Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarri diren aurrekontu-kredituetatik datoz.

##### 3. artikulua.– Emateko prozedura.

Adierazitako laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Laguntzak emateko, eskabideak alde-ratu egingo dira, euren artean lehentasuna ezartzeko. Lehentasuna 12. artikuluan ezarritako balioespen-irizpideei jarraituz ezarriko da, eta laguntzak emango dira harik eta deialdian esleitutako kredituak agortu arte.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuak.

1.– Deialdi honen bidez, RIS3 strategiaren garapenerako lehentasunezko arlo hauen barruan dauden proiektuak finantzatuko dira (biozientziak-osasuna atalean):

- a) Medikuntza pertsonalizatua.
- b) Gaixotasun arraroak.
- c) Osasun digitala eta gailu medikoak.
- d) Datuen analisi aurreratua.

I. eranskinean lehentasunezko arlo horien deskribapena jaso da.

2.– Deialdi honek, era berean, ikuspegi traslazonalarekiko ikerketa sustatu nahi du, Euskadiko osasun-sistema eta beste eragile batzuk inplikaturik, eta, beraz, proiektuak finantzatuko ditu honako modalitateetarikoa batean:

a) Osasun arloko funtsezko ikerketa proiektuak, hainbat erakunderen artean lankidetzan eginak. Horien helburu nagusia izango da ezaguera berriak hartzea fenomeno eta ekintza behagarrien azpian dauden oinarriak buruz eta aurreko atalean aipatutako arloak garatzeko ezaguera-oinarria zabaltzea.

b) Osasun arloko garapen teknologikorako proiektuak, dagoeneko egiaztatuta dauden aurreko esperientzietan oinarritutakoak, eta balio-katean aurrera egitera eta Euskadiko osasun-sistemaren ikerketa- eta berrikuntza-gaitasunaren eragina areagotzera bideratuak. Osasun-sisteman jatorria izanik, aurretiazko emaitza edo esperientzietan oinarritutako garapen-proiektuak izan daitezke, edo osasun arloko teknologia berritzaileak garatzeko proiektuak, edo teknologia sanitario garatu baten balidazio klinikoa eta/edo teknologikoa behar duten proiektuak izan daitezke.

3.– Urte bat eta hiru urte arteko denbora-tartean gauzatu ahal izango dira ikerketa-proiektuak. Hala ere, deialdi honetako laguntzak urtekoak izango dira eta 2016an egindako jarduerari baino ez zaizkie emango.

4.– Laguntza hauen bidez, jarduera ez-ekonomikoak finantzatuko dira, Ikerketa eta Garapenerako eta Berrikuntzarako laguntza estatalei buruz Europako Erkidegoaren esparruan Europar Batasunak ezarritako baldintzekin (2014-06-27ko EBAO, C 198) bat etorritik (19. puntua; ikerketa-organismoen eta ikerketa-azpiegituren jarduera primarioak, eta ezagueren transferentziarako jarduerak).

5.– Beraz, deialdi honetatik kanpo geratzen da jarduera ekonomikoaren finantziarioa. Ondorio horietarako, jarduera ekonomikotzat hartzen da:

- a) I+G zerbitzuak eskaintzea eta enpresen kontura egindako I+G.
- b) Ikerketa-azpiegituren alokairua.
- c) Jarduera ekonomiko guztiak, Ikerketa eta Garapenerako eta Berrikuntzarako laguntza estatalei buruz Europako Erkidegoaren esparruan ezartzen baldintzak betetzen ez dituztenak (2014-06-27ko EBAO, C 198).

6.– Aurkeztutako ikerketa-proiektuek Munduko Medikuen Elkartearen Helsinkiko Adierazpean ezarritako oinarriko printzipioak (gizakiengan egindako ikerketa medikoetarako printzipio

etikoak) eta ikerketa medikoaren arloan indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak errespetatu beharko dituzte.

#### 5. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea (ZTBES) osatzen duten eragile zientifiko-teknologikoak izan daitezke agindu honetako laguntzen onuradun, baldin eta, laguntzen eskabidea aurkezteko egunean, horretarako akreditatuta badaude ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuan, haren xedapen iragankorretan edo hura ordezkatzeko duen araudian ezarritakoarekin bat etorritik (109/2015 Dekretuaren bidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen osaera arautu eta eguneratzen da).

2.– Publikotasunari dagokionez, eragile horiek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileen Erregistroan identifikatuta daude, honako helbide hauetan:

Gaztelaniaz:

<https://apps.euskadi.eus/aa40paWebPublicaWar/webPublicaJSP/aa40painicio.do?idioma=es>

Euskaraz:

<https://apps.euskadi.eus/aa40paWebPublicaWar/webPublicaJSP/aa40painicio.do?idioma=eu>

3.– Eragileak, onuradun izateko, ZTBESan akreditatuta egon beharko dira agindu honetako laguntzen eskabideak aurkezteko epea hasten den egunean.

4.– Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 11.1 artikuluan eskatzen denarekin bat etorritik, eragileek, onuradun izateko, agindu honetan ezarritako laguntzak ematea dakarren jardura egin beharko dute, edo laguntza horiek ematea legitimatzen duen egoeran egon beharko dute.

#### 6. artikulua.– Onuradunen baldintzak.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako erakundeak onuradun izan ahalko dira, baldin eta deialdi honetan jasotako betekizunak betetzen badituzte.

2.– Ezin izango dira agindu honetako laguntzen onuradun izan honako egoeraren batean dauden eragileak:

a) Laguntza edo diru-laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuak izan badira, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaria egin dutenak, prozeduraren baten kaudimengabekotzat jota daudenak, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu daudenak (salbu eta horretan itun batek eragingarritasuna hartu badu), epailearen esku-hartzearen menpe daudenak edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta daudenak, konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia amaitu gabe dagoelarik.

c) Kausaren batean errudun deklaratu izateagatik, administrazioarekin egindako edozein kontratuen amaiera irmoa eragitea.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak honako lege hauetan jasotako kasuren batean badaude:

martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duena; abenduaren 26ko 53/1984 Legea (LBK, 1985, 14), administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunena; edo Hauteskunde Erregimen Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan (LBK, 1985, 1463 eta LBK, 1986, 192) araututako kargu hautetsiak izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko arauak ezarritako baldintzetan.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak –indarrean dauden xedapenek ezartzen dituztenak– ez izatea arauz zehazten den bezala beteta eta eguneraturik.

f) Paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean izatea egoitza fiskala.

g) Ordaindu gabe izatea diru-laguntzak itzultzeko obligazioak, erregelamenduz zehazten denarekin bat etorritz.

h) Ebazpen irmo baten bitartez galdurik izatea diru-laguntzak jasotzeko aukera, betiere bat etorritz lege honekin edo halakorik ezartzen duten beste batzuekin.

3.– Goragoko puntuetan zehaztu diren galarazpenak balioesteari, justifikatzeari, deklaratzeari eta euren helmenari dagokionez, eta, oro har, deialdi honetan onuradunen betekizunei buruz ezartzen ez denari dagokionez, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko 13. artikulua aplikatu da; izan ere, lege hori oinarritzkoa baita.

7. artikulua.– Ikerketa-taldearen betekizunak.

1.– Diruz lagun daitezkeen proiektuetan, Euskadiko osasun-sistemako gutxienez eragile batek parte hartu behar du nahitaez (horri dagokionez, Euskadiko osasun-sistematzat hartuko da Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 5. artikuluan zehazten dena). Gainera, Euskadiko osasun-sistemako eragileen arteko benetako lankidetzan ontzat joko da agindu honetako 12. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan ezarritakoarekin bat etorritz.

2.– Ikertzaile nagusietako bat –proiektu bakoitzean parte hartzen duten eragileetarikoa– proiektuaren koordinatzailea eta Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzarekiko solaskidea izango da, eta, era berean, eskabidea egiteko arduraduna izango da, 9. artikuluan ezartzen den bezala.

3.– Ikertzaile nagusiak, eta baita koordinatzaileak ere, honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Funtzionario-, estatutu- edo kontratu-lotura formalizatuta izatea, gutxienez eskabidea aurkeztu den unetik emakida-ebazpena eman arteko aldian, onuradun den (agindu honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz) ZTBESko eragilearekin, proiektua egiteko zentroarekin edo ikertzailearen lotura babesten duen hitzarmen bat indarrean daukaten erakundeekin.

b) Hainbat eragilek lankidetzan egindako osasun arloko funtsezko ikerketa proiektuetarako:

i) Koordinatzaileak proiektu bakar batean jardun ahal izango du koordinatzaile gisa.

ii) Ikertzaile nagusiek gehienez ere bi proiektutan parte hartu ahal izango dute ikertzaile nagusi gisa.

c) Osasun arloko garapen teknologikorako proiektuetarako ez da mugarik ezartzen parte-hartzeari dagokionez.

4.– Ikerketa-taldeko gainontzeko kideek ez dute mugarik izango proiektu desberdinetan parte hartzeko.

8. artikulua.– Finantzatu daitezkeen gastuak.

1.– Finantzatu daitezkeen gastuak zuzenean lotuta egon beharko dira proiektua gauzatzearekin, eta aldez aurretik sartuta egongo dira eskabidearen memorian.

2.– Honako hauek hartuko dira finantzatu daitezkeen gastutzat:

a) Langileen kostuak (ikertzaileenak, teknikarienak eta ikerketan laguntzen duten gainerako langileenak), betiere proiektuan aritzen diren neurrian.

Halaber, ikerketa-taldeko partaide den osasun-langilea jarduera asistentzialetik libratzeak dakartzan kostuak atal honetan sartzen dira, baldin eta proiektuan jarduteko libratzen bada, eta betiere lanaldiaren % 50 gehienez ere.

Ez dira finantzatzekoak izango funtzionarioen, estatutupeko langileen edo langile lan-kontratudunen kostuak, ZTBESko eragileei lotutakoak –hala EAeko sektore publikokoak nola partaidetza publikoa nagusi den eta sektore publikoan edo inongo administrazioetan sartuta ez dauden erakundeetakoak–, baldin eta Eusko Jaurlaritzako beste sailen batek edo beste administrazio publiko batek finantzatzen baditu.

b) Ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeako gastuak. Proiektua egiteko erabili den material inbentariagarria, material suntsigarria eta gastu osagarriak ere sartzen dira, material bibliografikoa eta proiektuen emaitzak hedatu eta transferitzeak dakartzan gastuak. Proiektua gauzatzeko beharrezkoa den heinean eta behar bezala justifikatzen bada, ez da mugarik egongo partida honetan.

Eta berariaz kanpoan geratzen dira altzariak eta instalazioak, kudeaketarako ekipo informatikoak eskuratzea eta bulegoko material orokorra finantzatzea (fotokopiak, tonerra edo telefono-gastuak).

Proiektua garatzeko kanpoko zerbitzuak kontratatzea aurreikusita egonez gero, eskaeraren memorian aipatu beharko da, honako hauek zehaztuta: zerbitzuaren nolakotasuna eta kontratua-ren kostua. Azpikontratatu egin ahal izango dira proiektuko jarduerak, diru-laguntza jasotzen duen jardueraren parte direnak, baldin eta diru-laguntzaren onuradun den eragileak berak egin ezin baditu (dena dela, egiaztatu egin beharko da hori proiektuaren memorian). Onuradun bakoitzeko azpikontratatu den jardueraren kostu osoa ezin izango da onuradun horri dagokion aurrekontu finantzarriaren % 50 baino handiagoa izan.

Hirugarren batzuekin hitzartutako jarduera diru-laguntzaren % 20 baino handiagoa bada eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, azpikontratatu ahal izateko honako betekizunak beteko beharko dira:

i) Kontratua idatziz egitea.

ii) Diru-laguntza ematen duen erakundeak aldez aurretik kontratua egiteko baimena ematea.

c) Bidaia eta joan-etorri gastuak. Kanpo-lanak, koordinazio-bilerek eta kongresuek, hitzaldiek eta halakoek eragindakoak, baldin eta proiektuarekin zuzenean lotuta badaude.

d) Zeharkako kostuak: deialdi honen kargura kontzeptu honetan finantzatzekoak izango dira proiektua gauzatzeko zuzeneko kostuen % 21 gehienez ere.

3.– Agindu honen babespean ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako erdietsi litekeen beste edozein motatako laguntza edo diru-laguntzarekin, baldin eta gainfinantza-ketarik gertatzen ez bada. Halakorik gertatuz gero, emandako diru-laguntza dagokion gehienezko mugaraino murriztuko da.

4.– Dena dela, ondorio horietarako, aplikatzekoak izango dira DLOko 29. eta 31. artikulua eta DEOko 68. eta 83. artikulua, oinarritzakoak baitira.

9. artikulua.– Eskabideak: dokumentazioa eta non eta zein epetan aurkeztu.

1.– Proiektu bakoitzeko eskabide bakarra aurkeztuko du koordinatzaile gisa jarduten duen eragileak.

2.– Osasun Saileko Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio eskabideak, eta bide hauetakoren bat erabiliz aurkeztuko dira: zuzenean Osasun Saileko Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako bideetako bat erabiliz, edo, Herritarrentzako Arreta Bulegoetan (Zuzenean). Eta, gainera, elektronikoki aurkeztu ahal izango dira euskadi.eus egoitza elektronikoa deskribatutako jarraibideak betez, honako helbide hauetan:

Gaztelaniaz:

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkproc01/es/contenidos/ayuda\\_subvencion/ris3\\_euskadi\\_2016/es\\_def/index.shtml](http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkproc01/es/contenidos/ayuda_subvencion/ris3_euskadi_2016/es_def/index.shtml)

Euskaraz:

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkproc01/eu/contenidos/ayuda\\_subvencion/ris3\\_euskadi\\_2016/eu\\_def/index.shtml](http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkproc01/eu/contenidos/ayuda_subvencion/ris3_euskadi_2016/eu_def/index.shtml)

3.– Honako dokumentazio hau aurkeztu behar da (laguntza-eskabidea osatzen du):

a) Eskabide-orri normalizatua (II-A eranskina, II-B eranskinarekin batera, memoria ekonomiko orokorra).

b) Ikerketa-proiektuaren memoria, eredu normalizatuan (III-A eranskina), parte hartzen duen eragile bakoitzaren informazioarekin batera (III-B eta III-C eranskinak).

c) Ikertzaile nagusiaren curriculum vitae-a eredu normalizatuan (III-D eranskina), Carlos III. Osasun Institutuko curriculum vitae eredu, edo Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioaren curriculum vitae eredu normalizatuak.

d) Eragile eskatzaile bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena, legezko ordezkariak sinatua (IV. eranskina).

e) Jarduera betekizun gisa, eta ezaugarriak kontuan hartuta, proiektuek legez ezarritako baime-nak eta/edo txosten hauek izan beharko dituzte:

i) Etika-batzorde eskudunak emandako baimena, hala badagokio, eta ikerketa-arloko arauak eta hitzarmenak betetzen direla zaintzen duten kide anitzeko beste organo batzuek emandakoa. Edonola ere, dagokion kide anitzeko organoko lehendakaritzak edo idazkaritzak emango du baimen hori, eta, bertan, akordioa adostu zen bileraren aktaren erreferentzia jasoko da.

ii) Proiektuak giza jatorriko lagin biologikoak behar baditu, Euskal Biobankuaren ziurtagiria eskatu beharko da, eta horrela jasoko da.

Puntu honetan aipatutako dokumentuak eragile onuradunen esku geratuko dira, hartara eragotzi gabe diru-laguntza ematen duen organoak egin ditzakeen egiaztapenak, ezta eskumena duten kontrol-organoek egin ditzaketen egiaztapenak eta kontrolak ere, eta kontrol- eta egiaztapen-jarduera horietan eskatzen zaien informazio guztia emango dute eragile onuradunek.

a), b), c) eta d) agirien txantilo normalizatuak honako helbide elektroniko honetan eskura daitezke:

Gaztelaniaz:

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkproc01/es/contenidos/ayuda\\_subvencion/ris3\\_euskadi\\_2016/es\\_def/index.shtml](http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkproc01/es/contenidos/ayuda_subvencion/ris3_euskadi_2016/es_def/index.shtml)

Euskaraz:

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkproc01/eu/contenidos/ayuda\\_subvencion/ris3\\_euskadi\\_2016/eu\\_def/index.shtml](http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkproc01/eu/contenidos/ayuda_subvencion/ris3_euskadi_2016/eu_def/index.shtml)

4.– Laguntzak eskatzeko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, goizeko 09:00etan, eta 2016ko irailaren 14an bukatuko da eguerdiko 13:00etan.

5.– Eragileek eurek hautatzen duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskabidea eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa. Halaber, eskabidearen ondoriozko jarduera guztietan, eta prozedura osoan zehar, eragile eskatzaileak hautatu duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoa betez.

10. artikulua.– Eskabideko akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzen eskabideetan daturen bat bete gabe utzi bada, edo ez badira aurkeztu eskatutako agiri guztiak, eragileari hamar eguneko epea emango zaio falta dena osatzeko edo eskatzen diren agiriak eransteke, eta, halaber, jakinaraziko zaio horrela egiten ez badu eskabidean atzera egin duela ulertuko dela; dena dela, Administrazioak eskabide horri buruzko berriazko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatzen denaren arabera.

11. artikulua.– Balorazio Batzordea.

1.– Balorazio Batzordeak ebaluatu eta hautatuko ditu behar bezala aurkeztutako edo, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat, dagokion epean zuzendutako eskabideak. Honako hauek osatuko dute Balorazio Batzordea: Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendariak, zeina presidente izango baita, eta, bokal gisa, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak edo horrek eskuordetutakoak, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariak edo horrek eskuordetutakoak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoko Laguntza Sanitarioko zuzendariak edo horrek eskuordetutakoak eta Osasun Saileko I+G laguntzen teknikari arduradunak, zeina idazkari izango baita.

2.– Balorazio Batzordea osatzen duten kideen izenak, titularrenak eta ordezkioenak, euskadi.eus egoitza elektronikoan argitaratuko dira, batzordearen kideak errefusatzeko eskubidea baliatu



ahalko dutela bermatzeko interesdunei, bat etorri betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 29. artikuluan xedatutakoarekin. Honako helbide hauetan ikusi ahal izango da zerrenda hori:

Gaztelaniaz:

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkproc01/es/contenidos/ayuda\\_subvencion/ris3\\_euskadi\\_2016/es\\_def/index.shtml](http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkproc01/es/contenidos/ayuda_subvencion/ris3_euskadi_2016/es_def/index.shtml)

Euskaraz:

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkproc01/eu/contenidos/ayuda\\_subvencion/ris3\\_euskadi\\_2016/eu\\_def/index.shtml](http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkproc01/eu/contenidos/ayuda_subvencion/ris3_euskadi_2016/eu_def/index.shtml)

12. artikulua.– Eskabideak ebaluatzea.

1.– Eskabideak jaso ondoren, dokumentazioa osorik dagoela, Balorazio Batzordeak eskabideen hasierako balorazio bat egingo du, honako irizpide hauek erabiliz (0 eta 5 puntu arteko eskalan baloratuko dira):

a) Espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi strategiako biozientziak-osasuna lehentasuneko arloetara egokitzea (l. eranskinean identifikatuak) (0-5 puntu).

b) Proposamenak Euskadiko osasun-sistemarentzat duen interesa (0-5 puntu).

c) Parte hartzen duten eragileen osagarritasun-maila (0-5 puntu).

Proiektu batek, ebaluazio-fasera igaro dadin, honako bi baldintzak bete beharko ditu:

a) 0 eta 5 puntu arteko eskala batean, gutxienez hiru puntu lortzea honako irizpide hauetako bakoitzean:

b) Eta puntuzioa, guztira, 11 puntukoa izango da gutxienez.

Lehenengo fase hori gainditzen ez duten eskabideak ez dira ebaluatuko, eta erabaki hori Osasuneko sailburuordearen ebazpenean jasoko da, Balorazio Batzordeak proposatuta, agindu honetako 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

2.– Aukeratu ahal izateko irizpidea gainditzen duten proiektuak, aurreko puntuan deskribatutakoaren arabera, pareka ebaluatuko dira (kanpo ebaluatzaileak), eta, horretarako, honako balorazio irizpideak eta azpi-irizpideak erabiliko dira:

a) Proposamenaren kalitatea eta bideragarritasuna. 25 puntu gehienez:

– Ezarritako helburuen argitasuna eta egokitasuna (0-5 puntu)

– Ideiaren balioa, ikuspegia eta metodologia (0-5 puntu)

– Proiektuak egiten duen ekarpen zientifiko-teknikoa, egungo artearen egoerari dagokionez (0-5 puntu).

– Lan-planaren koherentzia eta eraginkortasuna eta atazen egokitzea eta kalkulatzeko den aurrekontua (0-5 puntu).

– Proiektuan inplikaturako taldearen gaitasuna, eta partzuergoaren osagarritasuna eta kalitatea (0-5 puntu)

b) Proiektuen eragina. 25 puntu gehienez:

- Berrikuntzarako eta ezagutza berria integratzeko gaitasuna hobetzea (0-5 puntu).
- Proiektuaren emaitzetatik espero den eragina, osasuna hobetzeari eta/edo Euskadiko osasun-sistemaren funtzionamenduari dagokienez (0-5 puntu).
- Proiektuaren emaitzetatik espero den eragina, biozientziak-osasuna sektorearen garapenari, balioa sortzeari eta Euskadiko aberastasunari egiten dion ekarpenari dagokienez (0-5 puntu).
- Emaitzak ustiatzeko eta zabaltzeko aurreikusten diren neurrien eraginkortasuna (0-5 puntu).
- Ingurumenari buruzko alderdiak eta proiektuan genero-ikuspegia sartzea (0-5 puntu).

Pareka egindako ebaluazioan gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira finantzatzeko moduko proiektutzat hartuko, eta erabaki hori Osasuneko sailburuordearen ebazpenean jasoko da, Balorazio Batzordeak proposatuta, agindu honetako 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

13. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa.

Balorazio Batzordeak laguntzen zenbatekoa ezarriko du, honako hauek kontuan hartuta: pareka egindako ebaluazioan lortutako puntuazioa 12.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, dauden baliabide ekonomikoak, eta proiektu bakoitzean aurkeztutako aurrekontua eta aurrekontu hori lortu nahi diren helburuetara egokitzen den.

Lehentasunezko arlo guztiek gutxienez diruz laguntzeko moduko proiektu bat izatea nahi da, baldin eta ebaluazioan lortutako puntuazioa gainontzeko proiektuetan lortako gehieneko puntuazioaren % 75 bada gutxienez.

Laguntzaren zenbatekoa ebaluazioan lortutako puntuazioaren arabera esleituko da, proportzionalki, ebaluazioan emaitzarik onenak lortu dituzten proiektuetatik hasita, eta, horrela, aurreikusitako baliabide ekonomikoak agortu arte.

Emandako laguntzek eskatutako zenbatekoa osorik edo partez estali ahal izango dute, baina, edozein modutan, baterako finantzaketa kontuan hartuz, ezin izango da inolaz ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostu erreala.

14. artikulua.– Ebazpena, errekurtsioak, ebazteko eta jakinarazteko epea, jakinarazteko modua, publizitate-prozedura eta laguntza onartzea.

1.– Aurkeztutako eskabideak prozedura bakar batean izapidetuko dira, eta Osasuneko sailburuari dagokio, Balorazio Batzordearen proposamena kontuan hartuta, prozedura hori ebaztea, eragile eskatzaileek proposatutako gai guztiekin batera.

2.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko da; horretarako epea, gehienez ere, bost hilabetekoa izango da, agindu hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren ebazpenik argitaratu ez bada, eragile eskatzaileek euren eskabidea ezetsizat jo dezakete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

3.– Ebazpenean erabakiko da eskatutako diru-laguntzak ematen diren edo ukatzen diren. Ematen badira, honako hauek zehaztuko dira: eragile onuraduna, diruz lagundutako proiektua eta emandako diru-zenbatekoa. Laguntzak ukatzen badira, berriz, zergatik ukatu diren adierazi beharko da.

4.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta 15 eguneko epean, eragileek berriaz uko egin ahal izango diote laguntzari. Uko egiten dela adierazi ezean, deialdiaren ondorioetarako, laguntza onartu dela ulertuko da.

5.– Ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, horren aurka, eragile interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez dezakete Osasuneko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita.

15. artikulua.– Eragile onuradunen betebeharrak.

Diru-laguntzak jasotzen dituzten eragile onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

1.– Diru-laguntza eman den xede eta kontzeptuetarako erabiltzea.

2.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren egitekoak bete zeko, deialdi honetako diru-laguntzen inguruan eskatzen dituzten argibideak ematea.

3.– Eskabidea egiteko orduan kontuan hartutako datu edo inguruabarretan edozein aldaketa gertatuz gero, ahal bezain laster jakinaraztea Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari.

4.– Eragile koordinatzaileak eskabidean adierazitakoaren gainean aldaketaren bat egin nahi badu, aurrez baimena eskatu beharko dio Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari, eta horretarako arrazoiak eman. Deialdi honen ondorioetarako, laguntza-eskabidean aurreikusitako kontzeptuekiko gastu-desbideratzeak ez dira aldaketatzat jotzen, baldin eta % 20 gainditzen ez badute.

5.– Halaber, onuradunek neurriak hartu beharko dituzte diruz lagundutako jardueren finantza-ketaren izaera publikoaren zabalkundea egiteko, eta, orobat, kontabilitate-liburuak, eginbidetutako erregistratzeak eta gainontzeko dokumentuak –behar bezala auditutakoak– eramateari dagokionez, bat etorri merkataritzako eta, egoki bada, sektoreko legeriak exijitutako zehaztapenekin eta bai Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako gainontzeko betekizunekin ere; izan ere, lege hori oinarritzkoa baita.

16. artikulua.– Laguntzak ordaintzea eta kudeatzea.

1.– Laguntzak ordainduko dira 2016an (justifikaziorako adierazitako egunera arte) gauzatutako jardueren justifikazioa ematean, 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

2.– Eragile onuradunak ikusiko balu, justifikatutako arrazoiengatik, ezin duela finantzaturiko ikerketa-proiektua burutu, ahalik azkarren jakinarazi beharko dio Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari, eta proiektuaren garapen zientifikoaren egoerari buruzko txostena eta balantze ekonomikoa ere aurkeztu beharko dizkio.

3.– Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak, espedientea aztertu ondoren, Osasun sailburuordeari proposatuko dio dagokion laguntzaren kitapena egiteko erabakia har dezala, eta zehatz dezala zer kopuru itzuli behar den, hala egin behar bada.

4.– Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak, komenigarria dela uste badu, proiektuari jarraipen hobea egiten lagunduko duen informazio osagarria aurkezteko eska dezake.

### 17. artikulua.– Laguntzen justifikazioa.

1.– Laguntzak jaso dituen eragile onuradunak jasotako diru-laguntza zertan gastatu duen justifikatu beharko du, eta, horretarako, honako agiri hauek helarazi beharko dizkio Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari, 2016ko abenduaren 16ko 13:00 baino lehen:

a) Justifikazio memoria zientifiko bat, V-A eranskinean azaltzen den eskemari jarraituz egindakoa. Memoria zientifiko horretan, proiektua nola dagoen deskribatuko da, egindako jardueren deskribapena egingo da eta baita betearazpen ekonomikoari buruzko laburpena ere. Memoria proiektuaren koordinatzaileak sinatuko du.

b) Parte hartzen duen eragile bakoitzaren justifikazio memoria ekonomikoa (Excel), eragile onuradun bakoitzaren legezko ordezkariak sinatua (V-B eranskina). Memoria ekonomikoarekin batera, fakturen kopia aurkeztuko dira, eta, hala badagokio, ikertzaileek proiektuan sartutako orduen kostuaren ziurtagiria, 2016an egindako gastuak –azaroaren 30era arte– agiri bidez egiaztatzeko. Jatorrizko fakturak eragile onuraduneari artxibatu beharko dira, gehienez ere bost urtean, goian adierazitako justifikazio-epetik kontatzen hasita, eta eskuragarri egongo dira Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak egiten duen edozein egiaztapenerako.

2.– Aurreko puntuetan aurreikusi gabekoari dagokionez, diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoa bete beharko da; izan ere, lege hori oinarritzakoa baita.

### 18. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein baldintza aldatzen bada –betiere, laguntzaren xedea beteta–, eta beste edozein erakunde publiko zein pribatutatik beste diru-laguntzaren bat aldi berean jasotzen bada, laguntzaren zenbatekoa aldatu ahal izango da. Ondorio horietarako, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak izango du zenbatekoa murrizteko espedientea hasteko eta izapidetzeko eskumena, eta Osasun sailburuordeak horren gaineko ebazpena ematekoa.

2.– Proiektuaren garapen-prozesuan, gastu jakin batzuetara bideraturiko zenbateko partzial batzuetan aldaketak egitea beharrezko iritzi gero –betiere, laguntzaren guztizkoa gainditu gabe–, alde aurretik, proiektuko ikertzaile nagusiak idatziz egin beharko du eskabidea, horretarako arrazoiak emanaz, eta eragile onuradunaren legezko arduradunaren oniritziarekin.

Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari zuzenduko zaio eskabidea.

3.– Proiektuaren amaiera atzeratzen bada –eragile onuradunaren borondatearekin zerikusirik ez duten eta behar bezala justifikatzen diren arrazoiengatik–, eta hasiera batean proiektua garatzeko ezarritako epea bukatu baino lehen idatziz eskatzen bada –zenbateko luzapena eskatzen den zehaztuta–, Osasuneko sailburuordeak proiektua amaitzeko epea luzatu ahal izango du. Deialdi honen ondorioetarako, 15. artikuluan 4. zenbakian xedatutakoaren arabera, laguntza-eskabidean aurreikusitako kontzeptuekiko gastu-desbideratzea ez da aldatetzat jotzen, baldin eta % 20 gainditzen ez badu.

### 19. artikulua.– Ez-betetzeak eta dirua itzultzea.

1.– Ez-betetzea eragingo duten kasuak izango dira honako hauek, eta jasotako diru-laguntzak itzuli beharra ekarriko dute:

a) Emateko ebazpenaren baliorik eza, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Laguntza lortzea hartarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz.

c) Osorik edo partez ez betetzea ez helburua, ez jarduera ezta proiektua ere, edo ez hartzea diru-laguntza eman izanaren oinarrian dagoen jarrera.

d) DLOren 37. artikuluan ezarritako gainontzekoak.

2.– Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera (698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen bermeen eta itzulketaren sistema arautzen duena), ez-betetzea dagoen kasuetan, laguntza eskuratzeko eskubidea galdu eta, hala badagokio, jasotako diru-zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola ezarriko da, prozedurazko iza-pideak egin ondoren, egoki izan daitezkeen gainerako ekintzak eragotzi gabe.

Aipatutako zenbatekoak diru-sarrera publikotzat joko dira ondorio guztietarako. Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendariak izango du ez-betetzeagatiko espedientea hasteko eta izapidetzeko eskumena, eta Osasuneko sailburuordeak hori ebaztekoa.

3.– Ez-betetzea dela-eta laguntza itzuli behar izanez gero, laguntza jaso duen eragile onuraduna izango da erantzule Osasun Sailaren aurrean.

4.– Aurreko puntuetan aurreikusi gabekoari dagokionez, diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren 37. artikuluan ezarritakoa bete beharko da; izan ere, lege hori oinarritzkoa baita.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honetan aurreikusi ez den guztirako, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean idatzita dagoen bezala) eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta haren Erregelamenduan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoan), oinarritzotzat jotako manuen aplikazioari dagokionez.

#### AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 12a.

Osasuneko sailburua,  
JON DARPÓN SIERRA.

## I. ERANSKINA

### LEHENTASUNEZKO ARLOAK

Diruz lagundu daitezkeen proiektuak honako lehentasunezko arlo hauetakoren batekin lotuta egongo dira, Euskadi RIS3 estrategiaren biozientziak-osasuna esparruaren garapenarekin bat etorritik.

a) Medikuntza pertsonalizatua: doitasun-medikuntza edo P4 medikuntza gisa ere ezagutzen dena (prediktiboa, prebentiboa, pertsonalizatua eta partizipatiboa). Eredu mediko berria da; profil molekularretan oinarritua, eta erabiltzen dituen ezagutza, baliabide, sistema eta prozeduren bidez, dagokion pertsonari momentu zehatzean estrategia terapeutikoa eskaini diezaioteko, eta/edo gaixotasun bat izateko izan dezakeen aurretiko joera aurreikus dezake, eta/edo behar bezalako prebentzioa eskaini. Hau da, arreta medikoa pazienteari egokitzen zaio (diagnostikoa, pronostikoa, monitorizazioa eta tratamendua sartzen dira). Deialdi honen ondorioetarako, gaixotasunen tratamendu pertsonalizaturako medikuntza erregeneratiboa ere sartzen da, medikuntza erregeneratibotzat H2020an adierazitakoa aintzat hartuta (Social Challenge 1: Health, Demographic change and Wellbeing).

b) Gaixotasun arraroak: gaixotasun umezurtzak ere esaten zaie; herritarren portzentaje txiki bati eragiten dion edozein gaixotasun da. Europan, 2.000 lagunetik bati eragiten dionean gaixotasun hori arrarotzat hartzen da. Kolektiboki, erronka sozial garrantzitsua da, eta ahalegin gehiago egitea eskatzen du diagnostiko eta terapia berrien garapenean aurrera egiteko.

c) Osasun digitala eta gailu medikoak: IKTak, beste teknologia batzuk eta ingeniariak erabiltzea arreta sanitarioa hobetuko duten zerbitzuak, aplikazioak eta berrikuntzak garatzeko, pertsona sistemaren erdigunetzat hartzeko prozesuan ere aurrera eginez. IKTetan oinarritutako garapenez gain, honako hauek ere sartzen dira: irudi medikoak, in vitro sistema diagnostikoak, laborategirako ekipak, fisioterapia eta ortopedia, eta elektromedikuntzako gailuak.

d) Datuen analitika aurreratua (Big Data ere deiturikoa): organizazio batek eskura dituen datuak ustiatzeko metodologia eta ikuspegia, eta datuetan oinarritutako erabakiak hartuz jarduteko modu berria, produktu-mota berriak eta datuz aberastutako zerbitzuak sortzeko. Datu-kopuru handi-handien analisi azkarra (egituratuak, ez-egituratuak eta erdi-egituratuak) eta galdera garrantzitsuei erantzuteko informazio askotarikoa (arreta sanitarioa eta ikerketa biomedikoa).

**II-A ERANSKINA****ESKABIDE-INPRIMAKIA; RIS3 EUSKADI ESTRATEGIAKO BIOZIENTZIAK-OSASUNA LEHENTASUNARI LOTUTAKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUETARAKO DIRU-LAGUNTZAK**

ESPEDIENTE-ZENBAKIA (Administrazioak betetzeko):

PROIEKTU-MOTA

	Osasun arloko funtsezko ikerketa proiektua, lankidetzan egina
	Osasun arloko garapen teknologikorako proiektua

## LEHENTASUNEZKO ARLOA

	Medikuntza pertsonalizatua
	Gaixotasun arraroak
	Osasun digitala eta gailu medikoak
	Datuen analisi aurreratua

## PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA

Abizenak		Izena	
NAN			

## ERAGILE KOORDINATZAILE ESKATZAILEA

Izen soziala					
Zein zentrok gauzatzen duen (aurrekoa ez beste bat bada)					
Dept./Zerb.					
Egoitza soziala					
Udalerria		Lurraldea		PK	
		@			

## IKERKETA-PROIEKTUA

Izenburua		
GAUZATZEKO EPEA (Hasiera-data – Amaiera-data)		
PROIEKTUAREN AURREKONTUA, GUZTIRA		€
PROIEKTURAKO ESKATUTAKO LAGUNTZA 2016AN		€

**MEMORIA EKONOMIKO OROKORRA**

*Bete memoria ekonomiko orokorra II-B eranskineko Excel orrian. Nahi izanez gero, Excel-eko datuak honako taula honetan kopiatu daitezke.*

**PROIEKTUAREN AURREKONTUA**

ERAGILE PARTE-HARTZAILEAK	PROIEKTUA, GUZTIRA	ESKATUTAKOA 2016AN
1. PARTE-HARTZAILEA (Koordinatzailea)	0,00 €	0,00 €
2. PARTE-HARTZAILEA	0,00 €	0,00 €
3. PARTE-HARTZAILEA	0,00 €	0,00 €
4. PARTE-HARTZAILEA	0,00 €	0,00 €
5. PARTE-HARTZAILEA	0,00 €	0,00 €
<b>Proiektuen aurrekontua, guztira</b>	<b>0,00 €</b>	<b>0,00 €</b>

**Sinadura: Eragile koordinatzaile eskatzailearen legezko ordezkaria**



2016ko uztailaren 29a, ostirala

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten zaizu inprimaki honetan jarri dituzun datu pertsonalak «Ikerketa sanitarioa» izeneko fitxategian sartuko direla. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzaren ardurapean dago fitxategi hori.

Helburua da Osasun Sailak deituriko irakaskuntza, prestakuntza eta ikerkuntzarako laguntza-eskabideen eta jarraipenaren kudeaketa egitea, baita gizabanakoen ibilbide zientifikoaren jarraipena, arloen kudeaketa eta ikerketa-ildoak ere.

Nahi izanez gero, datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu edo aurkatzeko eskubidea erabil dezakezu. Horretarako, idatzi bat bidali beharko duzu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Eskabidea egin ez duen pertsona fisikoren baten datuak sartzten badira, sartu aurretik aurreko paragrafoan adierazitakoaren berri eman beharko zaio.

Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria  
Osasun Saila  
Eusko Jaurlaritza

2016ko uztailearen 29a, ostirala

**II-B ERANSKINA****MEMORIA EKONOMIKO OROKORRA**

(Zuriz dauden eremuak bakarrik bete)

PROIEKTUAREN IZENBURUA:

ESPEDIENTE-ZENBAKIA (Administrazioak betetzeko)

**PROIEKTUAREN AURREKONTUA**

ERAGILE PARTE-HARTZAILEAK	PROIEKTUA, GUZTIRA	ESKATUTAKOA 2016AN
1. PARTE-HARTZAILEA (Koordinatzailea)	0,00 €	0,00 €
2. PARTE-HARTZAILEA	0,00 €	0,00 €
3. PARTE-HARTZAILEA	0,00 €	0,00 €
4. PARTE-HARTZAILEA	0,00 €	0,00 €
5. PARTE-HARTZAILEA	0,00 €	0,00 €
<b>Proiektuen aurrekontua, guztira</b>	<b>0,00 €</b>	<b>0,00 €</b>

**Sinadura: Eragile koordinatzaile eskatzailearen legezko ordezkaria**

**III-A ERANSKINA**

**PROIEKTUAREN MEMORIA;** RIS3 EUSKADI ESTRATEGIAKO  
BIOZIENTZIAK-OSASUNA LEHENTASUNARI LOTUTAKO IKERKETA-  
ETA GARAPEN-PROIEKTUETARAKO OSASUN SAILAREN LAGUNTZA  
DELA-ETA AURKEZTUA

# Proiektuaren izenburua

**PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA**

<b>Abizenak</b>		<b>Izena</b>	
<b>Helbide elektronikoa</b>			

<b>ERAGILE KOORDINATZAILE ESKATZAILEA</b>	
---	--

**ESPEDIENTE ZK.**

(Administrazioak betetzeko):

## Aurkibidea

1	Proiektuaren laburpena.....
2	Aurrekariak eta egungo artearen egoera.....
3	Ikuspegia eta metodologia .....
4	Lan-plana .....
5	Partzuergoaren deskribapena eta ikerketa-taldearen esperientzia .....
6	Espero den eragina .....
7	Emaitzak ustiatu eta zabaltzeko neurriak .....
8	Ingurumenari buruzko alderdiak eta genero-ikuspegia sartzea. ....
9	Aurrekontua eta gastuak justifikatzea.....

- 1) Letra-mota eta tamaina dokumentu osorako: **Verdana 10**
- 2) Gehieneko orrialde-kopurua (hala dagokionean, III-B eta III-C eranskinetako taulak kontatu gabe) **50**
- 3) Dokumentu honen (III-A eranskina) osagarri dira III-B eranskina (ikerketa-taldea), III-C eranskina (agente eskatzailearen memoria ekonomikoa) eta ikertzaileen curriculum vitae normalizatuak.

## 1 Proiektuaren laburpena

- *Laburbildu proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak, honako hauek argi eta garbi adieraziz:*
  - o *Proiektuaren motibazioa eta helburuak, eta horien egokitasuna azaldu.*
  - o *Aginduan adierazitako lehentasunezko arloekin zer lotura duen.*
  - o *Euskadiko osasun-sistemarako duen interesa.*
  - o *Parte hartzen duten eragileen osagarritasun-maila.*

## **2 Aurrekariak eta egungo artearen egoera**

- *Proiektuaren izaera berritzailea islatu, egungo artearen egoerari dagokionez zer ekarpen zientifiko-teknikoa egiten duen adieraziz.*
- *Atal batean bibliografiarik garrantzitsuena jarri.*

### **3 Ikuspegia eta metodologia**

- *Diseinua, hipotesiak, aztergaiak, aldagaiak, datuen analisia eta ikerketaren mugak.*

## 4 Lan-plana

- *Deskribatu proiektua garatzeko etapak, atazen banaketa eta proiektua burutzeko nola antolatuko den; era berean, kronograma bat sartu ahal izango da proiektuaren faseak, atazak eta mugarri/deliverable garrantzitsuenak.*



## **5 Partzuergoaren deskribapena eta ikerketa-taldearen esperientzia**

- *Deskribatu labur-labur talde orokorra (parte hartzen duten eragileak), eta erakutsi partzuergoaren osagarritasuna eta eragileen arteko lankidetzak dakartzan abantailak.*
- *Deskribatu parte hartzen duen eragile bakoitzaren ikerketa-taldearen esperientzia, eta sartu proiektu eta argitalpen garrantzitsuei buruzko erreferentziak. Memoriarekin batera (III-A eranskina), ikertzaile nagusiaren curriculum vitae-a sartuko da, Aginduaren 9.3 artikuluan adierazitako aukeren arabera hautatutako eredu normalizatuan, bai eta ikerketa-taldea osatzen duten pertsonen zerrenda ere, III-B eranskineko Excel orrian.*

## 6 Espero den eragina

- *Proiektuaren emaitzetatik espero den eragina deskribatu, honako alderdi hauei dagokienez: osasunaren eta Euskadiko osasun-sistemaren funtzionamenduaren hobekuntzari dagokionez, eta/edo biozientziak-osasuna sektorearen garapenari, balioa sortzeari eta Euskadiko aberastasunari egiten dion ekarpenari dagokienez.*

## **7 Emaidzak ustiatu eta zabaltzeko neurriak**

- *Proiektutik espero den eragina bermatzeko aurreikusten diren neurriak definitu:*
  - *Patenteak sortzea, argitalepenak, transferentziarako produktuak edo komertzialki ustiatu daitezkeen beste emaitza batzuk.*
  - *Deskribatu nola aplikatu daitezkeen emaitzak osasun-sisteman (prozesua) eta proiektuaren emaitzak orokortzeko dagoen aukera.*

## **8 Ingurumenari buruzko alderdiak eta genero-ikuspegia sartzea.**

- *Azaldu labur-labur zer tratamendu emango zaien alderdi horiei proiektuan.*

## **9 Aurrekontua eta gastuak justifikatzea**

- *Eskatutako laguntzaren kontzeptuak justifikatzea. Eragile eskatzaile bakoitzerako, sartu dagokion informazioa, eta, horretarako, bete III-C eranskineko Excel orria, memoriari erantsi beharrekoa (III-A eranskina).*
- *Zehaztu ea beste laguntzarik eskatu eta/edo eskuratu diren proiektua edo proiektuaren zati bat garatzeko.*

2016ko uztailaren 29a, ostirala

**III-B ERANSKINA****ERAGILE ESKATZAILEAREN IKERKETA-TALDEA**

<b>PROIEKTUAREN IZENBURUA</b>	
<b>ESPEDIENTE-ZENBAKIA (Administrazioak betetzeko):</b>	

Eragile eskatzailea			
Zein zentrotan gauzatuko den eragile eskatzailea ez beste bata bada)			
Izena	NAN	Lanpostua	Titulazioa

Ikertzaile nagusiaren sinadura

--

2016ko uztailaren 29a, ostirala

### III-C ERANSKINA

#### ERAGILE ESKATZAILEAREN MEMORIA EKONOMIKOA

(Zuriz dauden eremuak bakarrik bete)

PROIEKTUAREN IZENBURUA	
ESPEDIENTE-ZENBAKIA (Administrazioak betetzeko)	

Eragile eskatzailearen identifikazioa	
Eragile eskatzailearen izena	
Zehaztu erakunde koordinatzailea edo parte-hartzailea den	

Aurrekontua eta eskatutako laguntza
-------------------------------------

#### 1) Eragilearen proiektuaren aurrekontu osoa

Gastu-kontzeptua	Zenbatekoa
Langileak	0,00 €
Ondasunak eta zerbitzuak	0,00 €
Bidaiak eta joan-etorriak	0,00 €
Zeharkako kostuak	0,00 €
<b>Eragilearen proiektuaren aurrekontu osoa</b>	<b>0,00 €</b>

#### 2) Eragileak 2016an eskatutako laguntza

Gastu-kontzeptua	Zenbatekoa
Langileak	0,00 €
Ondasunak eta zerbitzuak	0,00 €
Bidaiak eta joan-etorriak	0,00 €
Zeharkako kostuak	0,00 €
<b>Eragileak 2016an eskatutako laguntza</b>	<b>0,00 €</b>

Sinadura: Eragilearen legezko ordezkaria

## III-D ERANSKINA

## IKERTZAILE NAGUSIAREN CURRICULUM VITAE NORMALIZATUA

<b>Abizenak</b>		<b>Izena</b>	
<b>NAN</b>		<b>Jaiotza-data</b>	// uu/hh/ee
<b>Helbide partikularra:</b>			
<b>Udalerrria</b>		<b>PK</b>	
		@	
<b>Prestakuntza akademikoa</b>			
<b>Lizentziatura</b>			
<b>Zentroa</b>			
<b>Data</b>	//	uu/hh/ee	<b>Data</b> // uu/hh/ee
<b>Doktoretza</b>			
<b>Zentroa</b>			
<b>Data</b>	//	uu/hh/ee	<b>Data</b> // uu/hh/ee
<b>Egungo egoera profesionala:</b>			
	<b>Kontratua</b>		
	<b>Plantilla</b>	<b>Lanaldi osoko dedikazioa</b>	
	<b>Bitartekoa</b>		
	<b>Bekaduna</b>	<b>Dedikazio partziala</b>	
	<b>Bestelakoak</b>		
<b>Erakundea</b>			
<b>Zentroa/Fakultatea/lkastetxea/Institutua</b>			
<b>Dept./sekz./unitate estr.:</b>			
<b>Helbidea</b>			
			



<b>Aurreko jarduera zientifiko edo profesionalak</b>		
<b>Data</b>	//	uu/hh/ee
<b>Postua</b>		
<b>Erakundea</b>		
<b>Data</b>	//	uu/hh/ee
<b>Postua</b>		
<b>Erakundea</b>		
<b>Data</b>	//	uu/hh/ee
<b>Postua</b>		
<b>Erakundea</b>		
<b>Betetze-data</b>	//	<b>Sinadura</b>

**Curriculum vitae normalizatua: datu pertsonalak**

## IKERTZAILE NAGUSIAREN CURRICULUM VITAE NORMALIZATUA

<b>Izena</b>		
<b>Azken sei urteotan pareka ebaluatutako argitalpenen aukeraketa, kronologikoki ordenatuta (Argitaratutakoak bakarrik adierazi. Ez sartu argitalpenen laburpenak, ezta kongresuetako ponentziak ere)</b>		
<b>Egileak (sinaduren ordenaren arabera):</b>		
<b>Izenburua</b>		
<b>Aldizkaria</b>		
<b>Argitalpen data</b>	//	uu/hh/ee

Curriculum vitae normalizatua: argitalpenak

**IKERTZAILE NAGUSIAREN CURRICULUM VITAE NORMALIZATUA**

Izena	
<p><b>Ikerketa proiektuak</b> (Agentzia publiko edo pribatuek finantzaturik, azken sei urteotan parte hartutako proiektuen zerrenda –bukatuak edo abian direnak–. Adierazi labur-labur proiektuaren helburu nagusiak: ikertzaile nagusia, laguntzailea eta abar)</p>	

Curriculum vitae normalizatua: proiektuak

## IKERTZAILE NAGUSIAREN CURRICULUM VITAE NORMALIZATUA

<b>Izena</b>	
<b>Patenteak eta erabilgarritasun-modeloak (ustiatzen daudenak)</b>	
<b>Egileak (sinaduren ordenaren arabera):</b>	
<b>Izenburua</b>	
<b>Erregistro zk.</b>	
<b>Erakunde titularra</b>	
<b>Herrialdeak</b>	

Curriculum vitae normalizatua: patenteak



2016ko uztailaren 29a, ostirala

**V-A ERANSKINA**

**JUSTIFIKAZIO MEMORIA ZIENTIFIKOA, RIS3 EUSKADI  
ESTRATEGIAKO BIOZIENTZIAK-OSASUNA LEHENTASUNARI  
LOTUTAKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUARENA**

# Proiektuaren izenburua

**PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA**

<b>Abizenak</b>		<b>Izena</b>	
<b>Helbide elektronikoa</b>			

**ERAGILE KOORDINATZAILE ESKATZAILEA**

<b>Espediente-zenbakia</b>		<b>Emandako kopurua</b>	
----------------------------	--	-------------------------	--

## Aurkibidea

- 1 Gauzatutako jardueraren laburpena .....
- 2 Eraitzen eragina, ustiapena eta zabalkundea .....
- 3 Aurrekontua eta gastuak justifikatzea.....

## **1 Gauzatutako jardueraren laburpena**

- *Adierazi laburbilduta proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak, eta bereziki:*
  - o *Jarritako helburuak*
  - o *Egindako atazen deskribapena, eta, hala badagokio, adierazi zer aldaketa egin den aurreikusitako lan-planari dagokionez*
  - o *Lortutako emaitzak, eta jarritako helburuak noraino bete diren, eta, hala badagokio, lortutako eragin-motaren deskribapena.*
  - o *Ondorioak*



## 2 Eraitzen eragina, ustiapena eta zabalkundea

- *Identifikatu zabalkunderako, transferentziarako edo ustiapenerako produktu edo neurriak: artikulua, patenteak sortzea eta beste batzuk (lortutakoak edo prestatzen ari direnak). Sartu artikuluen separatak edo beste erreferentzia garrantzitsu batzuk.*
- *Deskribatu sortutako eragina edo espero zen eraginean izan diren aurrerakuntzak, honako alderdi hauei dagokienez: osasunaren eta Euskadiko osasun-sistemaren funtzionamenduaren hobekuntzari dagokionez, eta/edo biozientziak-osasuna sektorearen garapenari, balioa sortzeari eta Euskadiko aberastasunari egiten dion ekarpenari dagokienez.*

### **3 Aurrekontua eta gastuak justifikatzea**

- *Eskatutako laguntzaren kontzeptuak justifikatzea. Sartu erakunde onuradun bakoitzerako informazio zehatza, memoria ekonomikoa osatuz V-B eranskineko Excel-orrian.*

**Lekua eta eguna** |

**Sin.:** Proiektuaren koordinatzailea

2016ko uztailaren 29a, ostirala

**V-B ERANSKINA****ERAGILE PARTE-HARTZAILEAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA EKONOMIKOA**

(Zuriz dauden eremuak bakarrik bete)

<b>PROIEKTUAREN IZENBURUA</b>	
<b>ESPEDIENTE-ZENBAKIA (Administrazioak betetzeko)</b>	

<b>Eragile parte-hartzailearen izena</b>	
<b>Zein zentrotan gauzatuko den (eragile parte-hartzailea ez beste bata bada)</b>	

**1) Emandako aurrekontua**

<b>Gastu-kontzeptua</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Langileak	0,00 €
Ondasunak eta zerbitzuak	0,00 €
Bidaiak eta joan-etorriak	0,00 €
Zeharkako kostuak	0,00 €
<b>Emandako aurrekontua, guztira</b>	<b>0,00 €</b>

**2) Justifikatutako aurrekontua**

<b>Gastu-kontzeptua</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Langileak	0,00 €
Ondasunak eta zerbitzuak	0,00 €
Bidaiak eta joan-etorriak	0,00 €
Zeharkako kostuak	0,00 €
<b>Justifikatutako aurrekontua, guztira</b>	<b>0,00 €</b>

**Sinadura: Eragilearen legezko ordezkaria**